

“PARIS-DAKAR” DONOSTIAN AMAITZEN DA

Senegaldik, bere jaioterritik, 2012an atera zen eta 2017an iritsi zen Donostiara. Bost urteko bidaia. Sidyk (28 urte) bere jaioterritik Donostiara arteko ibilbidea errepasatu du. Itsasoak bustitako bi leku. Bi kontinente bereizten dituen itsaso bera. Libiatik Italiara eraman zuen itsasoa. Egon den leku bakoitzean, zalantzen itsasoan, gora eta behera ibili da. Dilemak, galderak... "Iritsiko ote naiz?". Nahigabeez eta bihotz-minez jositako 'odisea' Gipuzkoako hiriburua iritsi arte.



Zergatik erabaki zenuen Senegaletik 22 urterekin irtetea?

Shédiou eskualdekoa naiz, herri txiki batekoa. Eskolara joan eta nire amarekin bizi nintzen. Bi anaia gazteago ditut. Bizitza gogorra zen. Eskola utzi, eta bakarrik, joan nintzen autobusez. Dakar hiriburura. Aroztegi tailer batean zenbait aste eman nituen atea, leihoak... muntatzen. Han ez nuen inor ezagutzen. Ez zen batere samurra izan.

Horregatik, Malira joatea erabaki zenuen.

Bai. 2012. urtea zen. Bi egun egin nituen autobusean Maliko hiriburura, Bamakora, iritsi arte. Klean bizi nintzela, zenbait asteren ostean, arotz-lan bat aurkitu nuen (sei hilabete); langile gehiegi zeudela eta lau kanporatu gintuzten. Dirua amaitu zitzaidan eta ezin izan nuen alokairua ordaindu. Klean hainbat hilabetez bizi izan nintzen. Egunean otordu bakarra egiten nuen.

Han hartu zenuen Burkina Fasora joateko erabakia.

Bai, Mali eta Burkina Fasoren arteko mugan soldaduek dirua eskatu zidaten herrialdean sartu ahal izateko, eta ez nuen kartzelara bidali ninduten. Bi hilabete igaro nituen espetxean.

Gero, 5 hilabetez kotxeak garbitzen egin nuen lan. Hiriburura joan nintzen (Ouagadougou) eta kalean bizi izan nintzen. Egun batean, polizia etorri, eta agiririk ez nuenez –paperik– kartzelara bidali ninduten, berriz.

Burkina Fasotik Nigerera joan zinen.

Gogorra izan zen. Hiru aste eman nituen Niamey hiriburuko autobus geltokian lotan. Egun batean autobusez Agadesera joan nintzen. Libiara joatea erabaki nuen. Diru gutxi nuen. Pertsona oldarkor bat ezagutu nuen eta diru truke, nuen guztia eman nion – pertsona batek dirua osatzen lagundu zidan–, basamortua gurutzatu genuen kamioi batean –30 bat pertsona– hamabost egunetan zehar, Tripolira iritsi arte. Bakoitzak bost litro ur generamatzan.



Hiriburua gerran zegoen... Ramadanaren hilabetea gogoan dut, ondoren, merkatuan lan txiki bat aurkitu bainuen. Hiriz aldatzea erabaki nuen. Sabrathara joan nintzen.

Eta zer gertatu zen han?

Han bederatzi hilabete inguru igaro nituen. Gau batean etxeari eraso egin zioten eta hainbat pertsona hil zituzten eta, besteak kartzelara bidali gintuzten. Lau hilabete espetxean, oso baldintza gogorretan egon nintzen: jipoitzen gintuzten, egunean behin jaten genuen, apenas ikusten genuen eguzkia, ura gazia zen...

Asko ginen kartzelan. Denok ezin genuen aldi berean lo egin. Bi txanda egin genituen. Batzuk, 21:00etatik 02:00etara lo egiten zuten. Eta besteak, 02:00etatik 08:00etara. Denbora horretan gaixotu, eta kalera 'irten nintzen', itsasoa zeharkatzea erabaki nuen; ez nuen etxera itzuli nahi. Horrek basamortua zeharkatzea suposatuko luke...

Abadalah izeneko gizon bat ezagutu nuen. 'Itsasontzi' batean lan egiten zuen lagun bat zuen. Ez nuen ezer ordaindu, lagundu egin nien, espetxetik irten ondoren ez bainuen ezer. Gaez abiatu ginen. Ostirala zen. 2016ko lehen eguna. 160 lagun inguru ginen

'ontzian', eta hurrengo egunean, uste dut, Italiako Itsas Armadako ontzi batek, Lampedusara eraman gintuen. Bi egun igaro genituen itsasoan.

Zenbat denbora egon zinen Lampedusan?

Egun batzuk. Libiako espetxean egon nintzenetik arazoak nituen belaunean, eta han oso ondo artatu ninduten. Lampedusako medikuak Siziliara joateko idatzi bat egin zuen, eta handik Ancona hirira eraman ninduten, – Erromatik 300 kilometrora–, etorkinentzako harrera zentro batera. Sei hilabete eman nituen han. Gero Erromara joan nintzen eta kalean bizi izan nintzen. Italian bi urte eman nituen.



Eta Erromatik Parisera joan zinen.

Bai. Elkarte batek txartela ordaindu zidan. Bakarrik joan nintzen. Erromaren aldean, Frantzian pertsona afrikar gehiago bizi direnez, han lana... aurkitzen lagunduko zidatela pentsatu nuen. Parisko auzo batean ia urtebete igaro nuen. Ez nuen inor ezagutzen. Elkarte batek janari-poltsak banatzen zituen. Kalean egon nintzen beti: zubipean egin nuen lo...

Parisetik Erromara itzuli zinen. Zergatik?

Erroman 'apur' bat hobeto egon nintzen. Gehiago ezagutzen nuen. Parisen hotz handia pasatu nuen, gau batean poliziak esnatu ninduen kalean lo egiteagatik... Erroman hilabete bat kalean igaro eta gero, elkarte batek autobus-geltokira lagundu, eta txartela ordaindu zidan: Turin, Milan, Marsella...

...Bartzelona eta Donostia.

Bartzelonan denbora gutxi igaro nuen, ez bainekien non jaitsi behar nuen. Autobusa Donostiara iritsi zenean, "Azken geltokia" esan zuten, eta orduan jaitsi nintzen. Hirian, bi edo hiru aste noraezean ibili nintzen, eta egun batean, afrikar batekin egin nuen topo. Herrera auzoan meskita bat zegoela esan zidan. Eta hara joan nintzen. Senegaldar bat ezagutu, eta lagundu egin ninduen: jaten

eman zidan. Egun batzuetara beste pertsona bat ezagutu, eta pertsona atzerritarrei laguntzeko elkarte bat zegoela esan zidan.

Ez nion oso ondo ulertu, nik frantsesez hitz egiten bainuen eta berak ez. Janaria eman zidan pertsona aurkitu nuen berriz, eta CARITAS GIPUZKOAKo Laguntza Etxea egoitzara joateko esan zidan. 2017ko abuztuaren amaiera zen.

Orain, 2019ko martxoan gaude...

Denbora batez kalean lo egin nuen eta orain Hotzaldin egiten dut lo, gaueko harrera zentroan, eta Laguntza Etxeko jantokira ere joaten naiz; biak CARITAS GIPUZKOAKo egoitzak dira.

HHera (Helduen Hezkuntza) gaztelania ikastera joaten naiz, eta Errenterian bizikletak konpontzeko aurre-lan ikastaro bat egiten ari naiz, Sarean (CARITAS GIPUZKOAKo Fundazioa). Orain noizean behin hitz egiten dut amarekin...

